

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IEKORAKO UDALA

Alkatearen eskudantziak alkateordearen esku uztea

Alkateak, 2024ko apirilaren 12an emandako dekretu baten bidez, hau ebatzi du:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.3 artikuluekin lotuta Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 27.1 artikuluan eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiak 43., 44., 46., 47. eta 48. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, honen bitartez, ebatzi dut:

LEHENENGOA. Sabina González Olazagoitia alkateordeari eskuordetzea indarrean dauden legeen arabera alkatearenak diren eginkizun guztiak, maiatzaren 7tik 27ra, biak barne.

BIGARRENA. Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiaren azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuaren 42. artikulua betez, alkateak hurrengo osoko bilkuran emango dio horren berri udalbatzari, dagozkion lege ondorioak izan ditzan.

HIRUGARRENA. Ebazpen hau ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratzea, denek jakin dezaten.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

lekora, 2024ko apirilaren 12a

Alkatea

ALFREDO ARGUIJO ECHAZARRETA